


## BERRI OROKORRAK

2025eko apirilaren 30ean 29. zenbakia

### Gelaburuen bilera deialdia

Maiatzaren 7an arratsaldeko 16:45ean, ikasturte honetako hirugarren eta azken bilera egingo dugu. Bertan parte hartzera gonbidatzen zaituztegu etapa guztietako gelaburu zaretenoi.



### Jangela-zerbitzua

Jangelako bazkaldarrek maiatzean izango duten menua honakoa da:

#### ◆ 3-16 urtekoen menuak

[Maiatzeko menua](#)

[Alergia eta intolerantzien menuak](#)

#### ◆ Haur Eskolako (0-3 urte) menuak

[Haur Eskolako menu orokorra](#)

[Haur Eskolako alegia eta intolerantzia menuak](#)



Gogoratu, izena emanda egonik ez badu zerbitzurik behar, [usurbil@ikastola.eus](mailto:usurbil@ikastola.eus) helbide elektronikora mezua bidaliz jakinarazi behar dela, gutxienez bezperan, 13:00ak aurretik, **baita egun soltekako kasuetan ere**. Idatziz jakinaraztea derrigorrezkoa da menuari dagokion deskontua aplikatzeko. Hala egiten ez bada, eskaturiko menua kobratu egingo da.

## Zirimara

Datorren ikasturterako Zirimarako ate irekiak maiatzaren 6an 16:30ean kiroldegian izango dira. Izen-ematea maiatzaren 12an hasiko da. [Hemen](#) informazioa eta izena emateko galdetegia.



## Izan Hartxintzar Eguna

Maiatzaren 10ean Zarauzko Salbatore Mitxelena Ikastolari laguntzeko eguna antolatu da Usurbilen (tailerrak, bazkaria eta beste). Hezkuntza Sailak ezarritako isunari erantzuteko elkartasun-ekimena izango da eta hainbat ekintza antolatu dira. Hemen [egitaraua](#)

Animatu parte hartzera!!



## Herri Urrats

Maiatzaren 11n Senperen Herri Urrats, Iparraldeko Ikastolen jai ospatuko da. Informazio gehiago [www.herriurrats.eus](http://www.herriurrats.eus) webgunean.

Animatu eta parte hartu!



# LEHEN HEZKUNTZA

## Ikastola-Eguneko bazkaria antolatzeke deialdia

Ekainaren 7an Ikastola Eguna ospatuko dugu eta, urtero bezala, bazkaria antolatzeke gurasoen laguntza ezinbestekoa dugu. Astelehenean bilera egin genuen eta bertan, lantaldeak osatzen hasi ginen. Lantalderen batean [izena ematera](#) gonbidatzen zaitugu. Horretarako bete ondorengo inprimakia.

